

## Balorezko proposamena:

Gure produktua aurikular itzultzaileak dira. Produktu honek, bezeroei hurrengo eskainiko die:

- Beste herrialde batera joatea eta hango jendearekin harremanetan jartzea beraien hizkuntza ikasi eta ulertu gabe, aurikularrek beraiek hitz egiten dutena momentuan itzultzen dizulako zure ama hizkuntzara.
- Beste hizkuntza batzuk entzun eta pixkanaka ikasten joatea etorkizunean atzerrian lan egiteko aukerarekin.
- Oraingo jendeari asko inporta zaio hizkuntzak jakitea, honek lan aukerak handitzen dituelako, baina aurikular hauekin hori ez da beti bezala izango, izan ere, inportako duen bakarra ikasketak izango direlako.
- Telebistan, telesaio bat ikusterako orduan, beste hizkuntza batean ikusteko aukera ematen dute aurikular hauek, momentuan hitz egiten dutena itzultzen dutelako eta ulertzeko aukera paregabea delako.
- Aurikular hauek, besteak baino askoz hobeagoak dira, izan ere, belarrian jartzerako momentuan ez dira apenas ikusten eta gainera prezio aldetik ekonomikoak izango dira.

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure produktua onako bezero hauei zuzenduko zaie:

- Jende gazteari zuzenduko zaie, batez ere atzerrian ikasiko duten ikasleentzat, hizkuntza erresago ulertzeko eta dauzkaten zalantzak argitzeko.
- Zerbitzari entzat atzeritik datozen bezeroekin hobeto komunikatzeko eta bezeroei edo kontsumitzaileak eroso sentiarazteko.
- Asko eta urrun bidaiatzen duten pertsonentzat, bidaia erosoagoa eta errasagoa izateko.
- Lanarengaitik atzerrira bidaiatu behar duten enpresa edo langileentzat
- Kirol guztietako Entrenatzaileentzat, dauden taldean hizkuntza ezberdin bat baldin badaukate

## FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Gure enpresan bakoitzak funtseko itun bat daukagu. Gure artekoak dira funtseko sozietateak:

- Imanol: Produktuak sortzen dituzten makinak konpontzeko gaitasuna
- Oier: Salmentarako gaitasuna
- Aritz: Produktua diseinatzeko gaitasuna
- Julen: Produktua saltzeko webgunea sortzeko gaitasuna

## DIRU ITURRIAK:

- guk lanean irabazitako dirua
- gure familiaren diru laguntzaz
- Dirua lortuko dugu:bankuari prestamoa

Lehenik eta behin, bankuari prestamo bat eskatu behar diogu eta dirua ematen digunean, enpresa eraikitzen eta promozionatzen hasiko gara. Enpresa sortutakoan, lanean irabazitako diruareN laguntzaz, enpresa aurrera eramango dugu, gainera, gure familiek, diru laguntza emango digute. Horrela, enpresa atera ahal izateko diru nahikoa eukiko genuke

## KANALAK:

Gure produktua saltzeko modu egokiena webgune bat sortzea dela pentsatzen dugu, gaur egun jende guztiak mugikor bat daukadalako eta interneten begiratzeko ahalmena duelako. Baita ere, sare sozialetan iragarki bat jartzea ere pentsatu dugu jendeak ikusi dezan eta erostea animatzeko.

Dendetara joatea ere pentsatu dugu, fnac, media markt... eta horrelako dendetara saltzea jendeak errazago eros dezaten eta bere lagun eta senideei esan eta eros dezaten.

Eta azkenik play storren eta apple storren aplikazio bat jarriko dugu non hizkuntza multzoak deskargatu ditzazkezu eta nola funtzionatzen duen ikusi daiteke ere bai.

## BEZEROAREKIKO HARREMANA:

Bezeroekin edukiko dugun harremana digitala eta pertsonala edo aurrez-aurrekoa izango da.

- Bezeroek produktua webgunearen bitartez erosi dezakete, bertan informazio guztia izango baitu. Bezeroak webgunera joanda aurikularren instrukzio guztiak aurkituko dute, nola funtzionatzen duten ikusiko dute, baita hauen prezioak ere. Gainera gure aurikularrak zer dendatan egongo diren azalduko dira. Behin aurikularrak edukita play stor-en eta apple stor-en aurikularren aplikazio ere egongo da, bezeroak aplikazioa deskargatu eta bertan guk eskeiniko ditugun hizkuntza guztiak agertuko dira, bakoitzak balio duen prezioarekin batera.

- Aurikularren funtzionamenduari buruz zalantza bat baldin badaukate, webguneetan aurikularrak zer dendatan saltzen diren ikusita, dendetara joan daitezke bertan galdetzeko, han saltzaileari edozer galdetu eta honek edozer zalantza argituko du.

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure enpresako funtsezko baliabideak hurrengoak izango lirateke:

- Baliabide-fisikoak: Aurikularrak egiteko fabrika, ordenagailuak webgunea sortzeko eta eskariak bidaltzeko, diseinua egiteko materiala eta bakoitzak telefono mugikor bat egunean zehar deskargak eta eskariak ikusteko erebai.
- Baliabide-intelektuala eta Giza-baliabideak: Aritzen sormena aurikularrak diseinatzeko, Julenen gaitasuna webgunea sortu eta bertan agertzen diren arazoak konpontzeko, Oierren abilezia jendea konbentzitzeko gure produktua erosteko eta Imanolen gaitasuna aurikularrak egiten dituzten makinak puskatzen baldin badira edo aroazorenbat ematen badute konpontzeko.
- Finantza-baliabideak: Bankuaren mailegua eta gure aurrezkiak.

## FUNTSEZKO JARDUERAK:

Lehenik eta behin, funtsezko jarduerarik garrantzitsuena, aurikularren ekoizpena da. Ondoren, arazoak konpontzea eta azkenik, web gunea mantentzea, sustatzea eta zabaltzea.

Bezeroaren eskaera jaso ondoren, ekoizpena hasten da eta edozein arazoen aurrean konponketak egin.

Azkenik, interneten daukagun web gunea mantendu eta sarean zabaltzea izango da





KOSTUEN EGITURA: